

2020-2021eko Lan-Hitzarmena sinatu da Publikako langileekiko parekatze bidean aurrerapausu berria izan da.

Atzoko egunez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletako langileon lan baldintza hobetzen dituen lan-hitzarmena sinatu genuen. Testu berrian ekainean EHLk, EIBk eta LABek sinatutako hobekuntzek isla izan dute. Hala nola, LHko eta HHko tutoreen urteko lanaldien murrizketa, Hezkuntza Laguntzaile Espezialisten (HLE) prestaketa orduen gehikuntza, DBHko maisu-maistra eta lizentziatuen arteko lansari parekatzea, gurasotasun baimenen parekatzea, kategoria profesional guztietan administrazioak emandako finantziario gehikuntza baino soldata igoera handiagoak...

Behin Lan-hitzarmen berriaren testua adostuta, ohiko prozedurari jarraiki, hitzarmenaren erregistroa egingo da Lan Sailean. Hau egin ostean, atzo sinatutako testua argitaratu eta 2022ko hitzarmena negoziatzen hasteko salaketa ipiniko da.

Lan-hitzarmen berriaren negoziazioen testuinguruan sinatzaileek-EHLk, EIBk eta LABek - lau batzorde berri eratzea erabaki dute: ikastolen finantziarioa aztertzeko batzordea; jaiotze tasaren jaitzieraren ondorioak aztertuko dituen; jangela, sukalde eta garbitzaileen ratioak ezarriko dituen lan taldea eta kontratazioetan nazio irizpideak txertatzeko batzordea.

Negoizazio berriak biharko Euskal Eskola Publiko Komunitarioaren bidean pareko lan-baldintzak izango dituen langileria erdiesteko tresna izan behar du. Horretarako, ikastoletako langile guztion ekarpena eta borrokarako grina ezinbestekoak izango dira. Euskal Herriak merezi eta behar duen hezkuntza sistema burujabea erdiesteko ikastoletako langileok gure komunitateetan eragin beharko dugu.

“Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletako 2020-2021 Lan-Hitzarmena sinatu dugu. ”

“Euskal Herriak merezi eta behar duen hezkuntza sistema burujabea erdiesteko ikastoletako langileok gure komunitateetan eragin beharko dugu.”

**LAN-BALDINTZA DUINAK DITUZTEN LANGILEEZ OSATUTAKO
HEZKUNTZA SISTEMA BURUJABEAREN ALDE !
BORROKATZEAK MEREZI DU!
GORA LANGILEON BORROKA!**